

IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

2020

EUSKERA POESIA 14-16 URTE

BIGARREN SARIA:

Izenik gabeko sentimendua

Mikele López de la Hoz

Inguruan hodei zuriak.
Ez nau berotzen eguzkiak,
ez nire azala kolpatzen euriak.

Botilan harrapaturiko ontzi,
mugimendurik ezin bizi,
beirak askatasuna eragotzi.

Kanpoko eta barruko hots oro,
galtzen da airean astiro.
Xurrumurru ustelezko giro.

Begi bistan ezkuturik,
ihes egiteko modu barik,
saiatzeko gogo gaberik.

IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

EUSKERA POESIA 14-16 URTE

BIGARREN SARIA:

Ba al dakite hemen nagoela?
Ezagutzen dute nire egoera?
Urria begiradazko azalpena.

Nire esku dago beraz,
itsasoan olatuak sortzea.
Lurrera bueltatzeko indarrak
berreskuratzea.